

emendik TXAKURRAK DIRALA-TA.

tzertzia

teatroa be krisis baten
aldiz gtxi.
azaleak» elkarrean, negu
ilbo-n eta Bizkaia-n eus-
la zabaltzeko asmoa dau-
tzarentzat gauza intere-
go litzake. Baita irratie-
rako nobela aproposak
motea.

een elkarrean

ortu berri da. Bere as-
uska literatura indar-
batua aurrera eroa-
rako testuak egitea,
ubideak defenditzea.

karre hau 28 idazleek
ta sartu leitez bez
nartzen dabezan guz-

n inguruan editorial
da, ta hilero litera-
at argitaratuko dau,
ren gramatika oso
lkastoletarako behar
ruak, guztia euskera

-Naparroa), euskal
errien sariaketa bat
hartu nahi dabe-
al-eko Aintzamen-

lehenengo

bilbotar gaztea,
dabilan euskal-
lehenengo ge-
Sariketan.
ebazan botoak,
onena autatze-
bazan gehienak.
abestu eban,
ren aldetik, bai
ntasun eta esa-
euskal proble-

ze-ko Consa zi-
a ikusleen ar-
an.

euskaldun as-

errian festak
dira. Zer esa-
ri buruz?
euskal eran-
t, bestiak ni-

aldetuko do-
Bal, eta lku-
erketak edo
skeraz egi-
osorik pran-

lau: «Ahuz-
Euskalerrria

nistak izan.
galdetuten
aurten zu-
presenta-
do egingo
ago erabi-

a, kobar-
gitea izan

RENO

N
AN



Iraillaren 28'an Oñati'ko Ardi-zakur konkursoa.

Txakurra gizonaren lagun

Begi-blotzetan sartua dogu txakurra. Pozik naiz tris-
te gabiltzanetan, bera da gure lagun zintzo, jator, leia-
la. Ontan bai gertaera arrigarri asko! Mendingan, etxean,
uretan, geure ondoan, geu zaintzen dabilkigu beti. Tx-
akurra! Txakurra! Zelako dardara dauan edozein txaku-
rrek, itzokaz del egiterakoan.

Nik ba-dot arratoi-txakur bat, bizi-bizia, gauza guztiak
ulertzen dituna, itz egitea bakarrik palta yakona. Ez
dautsot sekula izenik jarri; baiña, «Txakurra!» nik esa-
tean, edo txistua jo, tximista lez datorkit ondora. Ta
sarri, gizarteaz gogait eginda lez, berarekin emon oi-
ditut ordu luzeak, zelairik zelai, orrekaz erreka, zulorik
zulo, ormarik orma. Dana yat begi, dana belarri. Baita
izuti be, baiña sugerik audienak arrapatzen daustaz.

Txakur-txapelketa Oñati'n

Lengo illaren 28'an, igande eguzkitsuz, iragarrita
egoanez, Oñati'ko Santa Luzia zelai-landan ardi-txoku-
rren konkurtsu ederra ospatu zan: Ardi-txakurren tre-
betasuna ikusteko X'garren Nazio-arte Txapelketa.
Millaka ikusle batu ziran bertan zein-gelagoka ori on-
dotik ikusi nairik. Azken urteotan, beste giza-balio ba-
tzukaz erdi-aztuta, taitu ortako kirol ta jolasetara joak
gara; orain landara naiz perretxiku konkurtsu bat, gero
txakur-saloak or-emen Goikoak geuretzat ipiñitako gau-
zok be eurena merezi. Ta gaur txakur-konkurtsuak be
eder ditugu.

Toki egokiak ditu Oñati'k ardi-txakur konkurtsu ba-
terako, Zelai zabal girotsuak inguruetan. Eta ementxe
ospatu euskuen aurten munduko ardi-txakur Txapelketa
nagusia. Ta ona eldu ziran, jakifia, Euskalerrriko, Kast-
ilako, Kataluñako ta Prantziako txakurdunak, euren tx-
akur, txikiak atzetik, begi-aundi, burtan-ikara ta miñ-luze,
abezala. Etzan ezer palta goizeko amalkak ingururako,
jentea ugari, 16 txakur txiki ta eguzkia blei-blei. Mai-
koak be, au da, eritxi-emolileak be J. M. Leturia, I. Ore-
gi, T. Untzalu ta J. L. Iriondo-en egozan, begi-zoll ta la-
pitza eskuan.

«Riki» ta lagunak

Txakurren len-zeregiña, au izan zan: txakur bakotxak,
banan-banan, ikurrin pitifuez asitutako zelai-une bati,
ikurrin-lerroz ibillirik, itzuli edo buelta osoa eman. Ar-
talderuntz biurtzean, birritan, artzainaren abotsera atan
be, gelditu bear eben.

Bizka'ko lru txakurrek —Mañari'ko «Riki» ta «Jai»-k
eta Zeanuri'ko «Pastor»-ek— guztiz ederto bete eben
euren arazoa; bardin Azkoiti'ko «Linda»-k eta Lizarraga
ko «Txiki»-k be; baiña zazpik ez eben ondo egin, eta
kanpo geratu ziran.

Zoragarria auxel Sen biziko ta mendeko ager-
ziran txakurrak. Izkuntza guztietan, edo beintzat eu-
raz, erderaz, prantsesexez, katalanez, biarnesez dei-
ten yaken, edo oiuka, txistuka, kiñuka, itz-erdika, «
belarri tente ta zollak!

Bigarren saloa onela izan zan: 120 ardiko artale-
maikoak egozan lekuraiño ekarri ta metro biko a-
ta ertz bietan lru metroko ormea eukan esi batetik
rau igaro-erazo. Etzan gauza samurra, ta txakurrak
koa istillu izan eben ardiakaz. Mañari'ko «Jai» bera
kanpo itxi eben onakoan; baita Zeanuri'ko «Past-
«Txiki» naparra, «Berger» (I) prantsesa ta «Tipic»
talana be.

Azken saloa. Lau eldu ziran onaiño. Ta au izan
lauron egitekoa: 50 bat ardiko taldea, amar metro
bal-inguruka eukazan eskorta barruan, metro biko a-
tik sartzea. Etzan au be lan goxoa, ta izan eben ber-
osotzerakoan naikoa buruko min txakurrak eta txak-
zaifak.

Ardiak lenengotan muker, izukor eta uxu izan oi-
ra, gero pixkaka ezi ta mantzotu arren. Oraingoan,
ta, txapelgoan lenengo egozanetatik barik, azkeneng-
etatik asi zan salo, ekiñaldia. Beraz, lenengo «Berger»
prantsesa, ta etzitun sartu ardiak eskortara; gero, «
da» azkoitiarra, ta sartu zitun; irugarren, «Turko» a-
maiotarra, ta sartu zituan; ta, azkenez, Mañari'ko S-
rafin Etxanobe 19 urteko artzain-mutillaren «Riki»,
onek bat-batean, altaren egin orduko, sartu ta ate-
egin zituan. «Riki» leu urteko txakur-emea dozu; ber-
ratzi konkurtsotan parte artu dau ta zazpitan txapeldu
geratu.

Saridunak

Sariak banatzerakoan, onela gelditu ziran: 1.º «Riki»
Mañari'koa (Bizkaia); 2.º «Turko», Aramai'koa (Ara-
ba); 3.º «Linda», Azkoiti'koa (Gipuzkoa); 4.º «Berger»
(I) Mañeon'goa (Frantzia); 5.º «Jai», Mañari'koa (Biz-
kaia); 6.º «Pastor», Zeanuri'koa (Bizkaia); 7.º «Txiki»
Lizarragako (Nabarra); 8.º «Berger» (II), Comou-Cihig-
neko (Prantzia); 9.º «Bijou», Zuberoko (Leona); 10.º «Tigre»
Villamañango (Leona).

Artzainak jantzi dotorez, euren erri-soiñekoz agertu
ziran. Antan leondarrak eta katalanak nagusi, ta euren
sariak izan zituen. Lenengo, Ruano analak eta, biga-
rren, Castellar de Much'eko Armengol'ek, euren kopak
eroan zituen.

An ziran España'ko ta Prantzia'ko telebixtakoak be,
euren tresna astunakaz. Rodriguez de la Fuente jaunak,
gañera, barriketa, argazki ta antzeko batzuk be artu
ebazan «Fauna» ta «Aventuras» deritxon telebixtako
emondietarako. Emetik atera daikegunez, ba, txaku-
rrok be gaur ez dira edozer gauza.

A. ONAINDIA

«YENDELAR...»